

KIROL ESKOLAK

AURREKO DENBORALDIKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA BERRITZEA **IRAILAREN 8TIK 11RA.**

1. 2019-2020 denboraldian parte hartu duten ikasleentzat da, baldin eta 2019-2020 denboraldiaren bukaeran, jarraitu nahi dutela berariaz esan badute.
2. Horretarako, ordaindu beharreko kuota klubeko kasuan kasuko kontu-zenbakian sartuko dute (ikus informazioa webgunean).
3. Ezinbestekoa da ikaslearen izen-abizenak agertzea ordainketaren kontzeptuan. Baldintza hori betetzen ez duten berritzeak ez dira baliozkotzat joko.

IZEN-EMATE OROKORRA: DATAK ETA PROZESUA

AURREZ IZEN-EMATEA

ABUZTUAREN 27TIK IRAILAREN 1ERA

1. **Soilik Burlatako Udalaren Web orriaren bidez (www.burlada.es).**
(Xakea: Klubaren bidez, 699559604 zenbakira deituz)

Honako datu hauek emango dira:

- Ikaslearen izen-deiturak.
- Telefonoaren zenbakia (mugikorra eta finkoa)
- Helbide elektronikoa.
- Zein taldetan eman behar duen izena (lehentasun ordena adieraziz)
- Ikaslearen NANA (baldin badu).
- Ikaslearen jaioteguna.
- Erroldatze herria

2. taldeak behar bezala eta behin betiko osatzeko, eskatu nahi dizugu **ez dezazula aurrez izena eman joan ezin zaren edo joan nahi ez duzun taldeetan.**

3. **Pertsona bakoitzeko, 4 taldetan bakarrik** aurrez izen-ematea onartuko da.

Talde osoak aurrez izena eman daiteke plazarik ez duten taldeetan ("beteta"), eta aurreinskripzio hori ez da kontuan hartuko pertsona bakoitzak gehienez egin ditzakeen 4 aurreinskripzioetan. Informazio hau argitaratu ondoren plaza libreak sor bailitezke.

4. Talde batean baino gehiagotan izena ematen baduzu **lehentasun ordena adierazi** beharko duzu: **-1**-etik gehien interesatzen zaizun taldearentzat **-4**-ra gutxien interesatzen zaizun taldearentzat.

5. **Plaza libreak:** Eskura dagoen plaza kopurua nabarmen alda daiteke, hainbat arrazoi dela medio: azken orduko bajak, osasun-neurriak eguneratzea eta bestelako inguruabarrak.

6. Aurrez izena emateko epea bukatzean: eskaera txikia duten taldeak baliogabetzen ahal izanen dira. Patronatua harremanetan jarriko da kaltetuekin, beste talde batzuetan izena eman dezaten.

7. Aurrez izen-ematea ezinbesteko tramitea da, baina ez du bermatzen plaza lortzea.

AURREZ IZEN-EMATE ZERRENDAK ARGITARATZEA

IRAILAREN 3A

1. Aurrez izen-emate zerrendan egoteak **EZ DU ESAN NAHI PLAZA LORTU DENIK**. Bide bat baino ez da **zure izen-ematea tramitatu ahal izateko**.
2. Zerrendak **argitaratuko dira** Udalaren web orrian.
3. **DATUAK BEGIRATU**: egiazkoak izan ala ez izan, zerrendan dauden datuak izango dira baliagarriak plaza eman orduan.
4. Sortu ahal diren **erreklamazioak argitaratzearen epearen barruan** egin beharko dira (09/03) eta izen-ematearen zenbakia aurkeztu beharko da.

ONARTUEN ZERRENDA ETA ITXARON ZERRENDA ARGITARATZEA

IRAILAREN 8A

1. Zerrendak **argitaratuko dira** Udalaren web orrian
2. Organizazioak **emandako plazak baliogabetu ahal ditu**, baldin eta errolda, adina, eta abar egiaztatzerakoan akatsak aurkitzen baditu.
3. Bete gabeko lekuak geratzen ez diren kasuetan, **pertsona bakoitzak parte hartu ahalko du jarduera batean**.

ORDAINTZEA - PLAZA FORMALIZATZEA

IRAILAREN 8TIK 11ra

1. Baieztatu **onartuen zerrendan** plaza duzula.
2. Klub bakoitzaren kontu zenbakian. Ordainketaren justifikantea aurkeztu beharko da jardueraren lehenengo astean klubean.
3. **Kontzetuan ikaslearen izen-deiturak eta jarduera jarri behar dira**
4. **Dagokion epean ez ordaintzeak plaza galtzea ekarriko du.**
5. Ordaintzeko epea edo plaza formalizatzeko epea amaitzean, taldeak ezabatzen ahalko dira, baldin eta behar adina jenderik izena eman ez badu. Patronatua harremanetan jarriko da kaltetuekin, behin betiko osatzen diren taldeetan parte har dezaten, baldin eta plaza librerik badago.

DERRIGORREZKO KUOTAK

BURLATAN ERROLDATUAK 97,00 €

BURLATAN EZ-ERROLDATUAK 145,00 €

1. Gainontzeko klubek eskatzen dituzten diru ekarpenak borondatezkoak izanen dira. Diru hori burlatako Kirol Patronatuak estaltzen ez dituen gastuak ordaintzeko erabiliko da betiere.
2. **Obari emandako kuota (Burlatan erroldatuak daudeneztat soilik)**: Informazioa kontsultatu daiteke web orrian (www.burlada.es)



INFORMAZIO GEHIGARRIA

1. **JERDUERA ASIERA:** IRAILAREN 14A

2. **Kirol-jardueren eskaintza edozein unetan alda daiteke bere osoan edo hein batean**, betiere unean uneko osasun neurri indardunen arabera eta antolaketan egin beharreko egokitzapenen arabera.

3. **Kirol-jardueren eskaintza edozein unetan alda daiteke bere osoan edo hein batean**, betiere unean uneko osasun neurri indardunen arabera eta antolaketan egin beharreko egokitzapenen arabera.

4. **Plazak zozketaren bidez emango dira**, eskabideen kopurua lekuen kopurua baino handiagoa den taldeetan. **Burlatan Erroldatuak lehentasuna** izango dute **erroldatuak ez** diren pertsonen aurrean.

5. Eskaintzen diren **jarduerak aldatu edo ezeztatu ahal** dira. Erabiltzaileek horren informazioa jasoko dute. Taldeak ez dira sortuko eskaera urria bada.

6. **Asegurua eta osasun-azterketak:**

Gomendagarria da izena emandakoek aurrez osasun azterketa egitea edota medikuari horren berri ematea edo kontsulta egitea.

Herritarraren kirol-jarduera orokorraren ondoriozko osasun-arreta sektore publikoko osasun-aseguramendurako erregimenaren ohiko prestazioa da eta/edo beren borondatez duten aseguru pribatuarena. Horrenbestez, Kirol Patronatuak ez du bere gain hartuko prestazio horrek eragiten duen gastua.